

GARAZI ALBIZUA

TERMITA

Itzulpena: Bego Montorio

Gaztelaniazko
Euskadi
literatura
saria

BETI DAUKAT GOSEA
ETA TINTA ESKUETAN

SARRERAKO DEIA

narratiba
erein

TERMITA

n a r r a t i b a • 169

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko ekainean

Jatorriz Galaxia Gutenberg S.L.-k gaztelaniaz argitaratua.
Euskarazko itzulpen hau Galaxia Gutenberg, S.L.-rekin adostuta argitaratu da.

Jatorrizko izenburua: *Termita*

Azalaren diseinua: Iván Landa | Erein argitaletxea

Maketazioa: Asier Beltza | Erein argitaletxea

© itzulpenarena: Bego Montorio

© testuarena: Garazi Albizua, 2024.

© edizio honena: EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-089-6

L.G.: D 560-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Garazi Albizua

TERMITA

Itzulpena: Bego Montorio



«Jantzazu»

Hotzak zurrunduta dago sukaldea. Umeetako biren negarra mantra bilakatu da. Beste zarata bat gehiago, tai gabe jasatearen ondorioz moteltzen dena. Arretarik ez emateko barneratzen da: goseak ari dira negarrez.

Amak ahal dituen umeak biltzen ditu sukaldean: jan dezatela beroa. Berak ere negar egingo zuela uste zuen, ukabilkada bat sentituko zuela urdailean.

Baina ez du egiten eta ondo pentsatua du dena: neskaita lepotik hartu eta sukalde bazterrera darama, mugi dezan uzten du umeak. Amantaleko poltsikotik zerbait atera eta umearen eskuan jaritzen du mugimendu basati batez.

—Jantzazu —diotso.

Esperanzak eskua zabaldu eta gazta zatia ikusten du. Ez du zalantzarik egiten. Irensten du.

I

Esperanza

Atertu ahala, usaina mudatu eta samurtzen denean irteten banaiz, toki segurua da terraza. Baldosa okrezko espazioak amets-harrapatzaile baten funtzioa betetzen du zenbait minutuz. Etxeko bizitza eta kanpoko bizitza bereizten dituen zerrenda bat. Hezetasuna masteka daiteke, etxe barruko hautsaren akaroen eta hiriko mikrobio kutsatuen zaporea du. Anbarezko askatasunaren laurogeita zazpi segundo horietan *ia* zoriontsua naiz. Gero, barealdia dator berriro.

Barealdi kabroi zentzugabea.

Termitaren gorputza entzuten dut. Itzartu da. Giza begien itxura egiten duten bi zirrikitu horik zeharkatzen diote aurpegia, baina hemendik pasatzen ausartzen den jendeak deabru batenak direla uste du. Arrazoia ematen diet.

Nire amama da.

II

Zumardia

Zumardiko kale garbi zabaletan itzuri egiten didate bakarririk baldin banoa. Zumardian, itzuri egiten didate amarekin ez banago edo nolabaiteko laguntza behar ez badute. Nigandik zerbait nahi dutenean, arin kontatzen didate; begirada jaso gabe.

Artegatu egiten nau jendearen janzteko moduak. Euren larruazalaren parte balitz bezala erabiltzen dute arropa; elikatzen dute, dirdira ateratzen diote, lisatzen dute eta leungarria botatzen diote. Euren buruen erakusleioa sortzen dute. Nire antsia usaintzen dute eta, horren eraginez, aldendu egiten dira. Keinu mutu batez identifikatzen dugu elkar, isilean existitzen den egia erabateko hori ulertzen dugu: apal desberdinetakoak gara.

Etxean ez dago ispilurik, duela hiru aste hautsi zituen Termitak, eta beldurra ematen dit dendetako erakusleioetan nire isla ikusteak. Hitz egiten didatenen aurpegiek ez didate ezer adierazten; burumakur, nire boten puntetan edo

praken azpilduran jartzen dute arreta. Gutxitan ausartzen dira belaunetatik gorago.

Nik ere haien zapatei erreparatzen diet. Garbiak, berriak edo distiratsuak. Zapataren bat, agian, lokatzez zikinduta. Txarol beltzeko mokasin batzuk geratu dira nire aurrean. Lokarriak akatsik gabe lotuta daude, begiztak ezinezkoa dirudi. Zapataren barneko alboan kremaierarik ote dagoen bilatzen dut. Agian fabrikatik etorriko da hala begizta. Ez dut kremaierarik topatzen. Zapatek ez dute orban bakar bat ere ez. Zein kale zapaldu eta zein saihestu duten galdeetzen diot neure buruari. Zenbat metro ibili ote dituzten asfaltora atera direnetik.

Bi kolpe urduri jo dituzte galtzada-harriaren gainean.
—Zer nahi duzu? —galdetu dut, oldarkor.

Inork ez du erantzun. Mokasinen jabeak paper zimurtu bat luzatu dit, nik, bere Karonte bat-batekoak, amamari pasa diezaiodan. Gero, jiratu da. Urrundu da.

Irentsi nahi nauen, berarekin erlauntzera, partaide izatera eraman nahi nauen zerbaiten apeua bailitzan aditzen dut haren urratsen oihartzuna. Soinu iluna da, tribala, danbor primitiboena. Helduko ez den euriari zuzendutako kantu bat, baina erlekumea dantza paranoiko batean biltzen duena.

Begiz arakatzen ditut perkursioa eragiten duten zango ondo taxutuak, galtza beltz mateek bildurik daude, gona estu batek erdi irentsirik eta jaka batez apaindurik, urrats bakoitzean ipurdiaren alde bat laztantzen dio jakak. Erritmoak liluratuta geratu naiz. Haren ibilerak liluratuta. Hotzikara

batek esnatu nau. Halakorik non ikusi dudan pentsatzen dut. Film batean, hamabostetan. Aldizkari baten, hamahiruren argazki batean. Berdin dio. Ibilera hori couché dir-dirari dagokio, eleberri askotako orrialdeei eta nik sartzerik ez dudan edozein fikziori.

Ez dut nahi. Askotan errepikatzen diot neure buruari, azkar, mokasinen burrunbatik urruntzen nauen mantra errepikatzen dut. Ez. Ni ez noa. Nik ez dut nahi. Ez dut nahi. Ez.

Nire gorputzarekin lehian ari da arropa. Behar ez den to-
kian tolesten da, zimurtzen da, zikintzen da eta urratzen da.

Oihu egiten dit, haserre: oldartzen da. Zelo gutxirekin bildutako opari baten moduan estaltzen nau, baina neure burua defendatzen dut: tira egiten dut, eman, moztu, bezatu eta ni ukitzera behartzen dut arropa. Nire zelulitis guttia ukiaztatzen dut. Nire oreztak. Nire gantzak. Nire ukondoan sikua. Nire titi desberdinak. Depilatu gabeko nire ileak. Nire bizkar zabala. Ubelduraren bat etxeko altzarien kontra harturiko kolpe batek eragindakoa, edo autobuseko eserlekuaren kontra edo zeinahi tabernatako zoruan ainguratutako aulki birakari baten kontra.

Balkoiei begira gurutzatzen dut kalea, hala, tente ibiltzera behartzen dut neure burua eta emakume sendoa ematen dut. Pentagono gorrixketako zorua atzean uzten dudan

neurrian, hazi egiten naiz. Altuago bilakatzen naiz, ilea askatzen dut, dirdira egiten du. Lantokira heltzen naizenerako, han izan nahi duten langilea bihurtu naiz.

III

Haiek daukatena

Lanaldiko zortzi ordu eta erdietan buru belarri saiatzen naiz amarruari eusten.

Kutun bat baliatzen dut, Termitak, oraindik Nivea eta mentolezko gozokien usaina darien amama horietako bat zenean, oparitu zizkidan kutunetako bat. Bederatzi edo hamar urte izango nituen, artean ere besapean ardoa eta gazta hartuta amamarenera bisitan joan ohi den biloba horietako bat nintzenean. Eskuetan lurra eta ezpain ertzean txikle puska bat zuen beste ume bat baino ez. Garai hartan erroskillak egiten genituen: kolpeka aritzen zen amama. Indarrez. Oreari heltzen zion bere bele atzaparrekin, bat gainean eta bestea azpian, eta, irin eta ur nahaspila mahaiaren kontra jaurtitzeko unean, atzaparra kentzen zuen, zalu. Huts egin zezan nahi izaten nuen, kolpeari iskin egiteko denborarik izan ez zezan. Hark bazekien hori, eta ilea nahasten zidan irin, ur, azukre eta altzariaren zerrautsaren arrasto itsaskorrez, barre algaraka.

Beranduago, hazi egin nintzen eta zakutoa oparitu zidan.

Beti daukat aldean, ez giltzak ez kartera ez txanpon solteak gordetzeko balio ez badit ere. Oihal urratuak irentsi egiten ditu eta gutxien espero dudanean jaurtitzen: bagoiaren eta nasaren artean, supermerkatuko atean edo, aldarre onean badago, tabernaren bateko zoru likatsuan. Telesail bateko tramaren parte balitz bezala begiratzen diot poltsari. Netflix, HBO edo Amazon Prime-ko istorioekin elikatzen dut neure barneko Tantaloz.

Hektorrek hitz egin zidan Tantaloz hamabost urte bete nituen udan. Herrian. Jorge lehengusuari iskin eginda hilerria hanka egin genuen batean.

—Nor duzu gustukoago, Silvia edo ni? Eta ez esan Jorge! —galdetzen dit Hektorrek eskumuturretik sendo helitzen didala—. Tantaloz bezalakoa zara.

Hektor ni baino nagusiagoa da, betaurrekoak ditu eta liburukoteak irakurtzen ditu.

—Ez dakizu ezta nor den, ez ala?

Ezetz egiten dut buruarekin eta are gehiago gerturaten natzaio.

—Zure janguragatik da, *tia*, beldurra ematen duzu. Erotuta ematen duzu. Dena jaten duzu —dio. Belarri atzean jartzen dit kopetako ile-sorta bat. Ahots tonua apaltzen du—. Eta denok.

Musu ematen dit. Musu ematen diot. Aldentzen nau.

—Eta demonio hutsa zara, *joder!* Burua galaraziko didazu! Ondo iruditzen zaizu egiten duzun hori? —galdetzen dit, beragana hurreratzen nauela lepoan musu emateko.

Eskuak kamiseta azpitik sartzen dizkit titiak estutzeko. Praxak jaisten ditu eta gona igotzen dit.

—Gustuko nauzu, ezta? Silvia baino gehiago, ezta? Esadazu hola gustatzen zaizula, hola. Esadazu badakizula egin behar dudala, zure mirabea naizela. Zugatik egiten dudala. Esadazu...

Hektor ez da isiltzen zakila sartzen didan bitartean.

Nik baino hiru urte gehiago ditu eta izugarri gustatzen zaio nirekin hilerrian larrutan egitea. Ni ohera eramateko edozer gauza esateko lotsarik ez duen lehen gizona da. Harrituarena egiten dut nik, inozoarena, denaz harrotzen den irribarre ezti-maltzurereko neskaarena. Dena dakienarena. Denari ondo irizten dionarena.

Neuk ere sinetsiko nuen, agian. Ez dakit. Arratsalde hartan Tantaloren nor izan zen bilatu nuen.

Harrezkerotik, nigan bizi da munstro mitologikoa; atseginez irensten ditu telesailak, baina ez dute luzaroan asetzen. Nire inguru gertuan bilatzen ditut pantailako eszena magikoak apaintzen dituzten gainerako osagaiak: intentsua, kandelak, baratxuriak edo apoak. Melodia entzuteari lotzen natzaio, melodia erdi ilun erdi dibertigarri horri zeinarekin eraikitzen duten monotonia hausteko eszenatokia.

Eta irentsi egiten dut; koilarakada txikika ematen diot jaten demonioari, telesailak tragatzen ditut bitzta erakargarrien katalogo bat kontsultatuko banu moduan: orain bikotekide korear bat nahi dut, orain ilea gorritz tindatzeko gogoia sartu zait, orain psikiatra izan nahi dut.

Ikaragarria da nik nahi ditudan zenbat gauza ezagutzen dituen telebistak.

Zakutoak, ordea, terrazara ainguratzen nau, armairuan dauden etxeko madari-marmelada iraungietara, Iberdrolaren gutun erdi urratuetara, hutsik egonagatik zein bere kuxatxoan dauden pilula-blistetara, harengana eta haren esku gomazkoetara, egun epel batean, terrazan, poltsa josten ari dela. Soinu bandarik gabe. Magiaz gainezka.

Puntada bakoitzarekin, historia triste eta unibertsal baten parte bat kontatzen du Termitak.

—Ezkutatu, ezkutatu, ezkutatu... Modu askotara gorde zaitezke, haietakoren batek funtziona dezake, baldin eta *bakarririk* ezkutatzen bazara. Ez eraman inoiz ezer aldean. Bestela, disimulatzea izango da desagertzeko modu bideragarri bakarra. Hori da. Baita ezkutatzeko itxura ere egin ezazu.

Haria amaitzen denean, antzeko kolore bateko beste bat bilatzen du, muturrak elkartu eta bi hatzez nahasten ditu, bata bestearekin jiraraziz.

—Edozer gauza oparitu dezakezu, jakina. Baita inork ulertzen ez duena ere, alaba bat, agian.

Gero beheko ezpaina hozkatu eta botoi-zulo bati kantatzen dio.

—Hori da, ezkutatu ezazu alaba, oparitu sugeari. Disimula ezazu.

Beste zerbait entzun uste dut ekaitza hasi aurretik. Termita bekozko ostentzen da hodei beltzetatik. Haren azken

hitzen oihartzuna gozaten dut barrura jarraitu aurretik. Sukaldean, hatz hezurtsuekin jotzen du behin eta berriro ma-
haia, erratzetik ihesean dabiltzan labezomorroen hanka txi-
kiak dirudite. Zomorroaren haginkada motelduak egurrean.

Jipoiak. Hezetasuna. Gosea.

—Zertan zaude hor geldi? Egin zerbait. Disimula ezazu.

Eta nik men egiten dut. Hogeita hamazortzi urte da-
ramatzat Termitaren agindua zorrotz betetzen; horregatik
egiten ditut itxurak: zortzi ordu eta erdiz B73 naiz, teleo-
peradorea. Galde-eskeetan lan egiten dut. Zortzi ordu eta
erdiz kexak, irainak, mehatxuak eta proposamen lizunen bat
entzuten ditut:

Ondo dakizu bestean bizitza izorratzen.

Lapur ostia bat zara.

Ez al dizu lotsarik ematen hor lan egiteak?

Urdanga.

*Hilko zaitut, jipoituko zaitut eta bortxatuko zaitut, ber-
din dio ordenak.*

Izen bat eta toki bat asmatzen ditut: Isolda naiz, Mala-
gatik ari natzaizu. Eta nire denboraren zortzi ordu eta erdi
horietan kexei, irainei eta mehatxuei erantzuten diet.

Batzuetan, proposamen ez oso fidagarriak egiten ditut:

*Horixe. Eskaintza berriak zure oraingo arazoa konpon-
duko luke eta zerbitzu hobea emango lizuke; ondo baderi-
tzozu, kontratazioko lankidearekin pasatuko zaitut.*

Bien bitartean, jan egiten dut: Donuts pakete bat za-
baldu, kafean busti eta deia bideratzen dut. Urdaiazpiko
zaporeko Ruffles patatak irensten ditut. Gominolak eta

Jumpersak kentzen ditut mihiaz haginaren artetik. Dirdira-tsu ditut eskuak, koipez gainezka; ordenagailuko tekklak ozta-ozta ikusten dira zikinaren zikinaz. Buruan finkatuta dudana diademak buru-azalari heltzen dio, ile urdinekin korapilatuta. Medusaren sugeetako bat bailitzan sentitzen dut, lanaldi osoan entzun behar dudana guztia xuxurlatzen. Lantokia itsatsi egiten zait.

Norbaitek uste badu besterik gabe utz diezaikedala irensteari, eskuak sarriago garbitu ditzakedala eta aulkian txertaturiko nire aztarna erauzi, oker dago. Zakutotik erregalitz gorri dirdiratsiak azaltzen dira. Deika ari zaizkit, mauka-mauka jaten ditut.

Etengabeko dei-soinu guztien artean, atsegina da Isolda, ahots txeratsua du eta konfiantza ematen du. Zortzi ordu eta erdiz, hileko 960 euroren truke, haienak gara. Isolda bera. Eta nire kraka.

IV

Nik daukadana

Beti daukat gosea eta tinta eskuetan.

Geroago hiru zatitan tolestuko dudan paper batean idazten dut. Bekokira hurbilduko dut, begiak itxiko ditut, lasai hartuko dut arnasa eta, ondoren, gainerakoen alboan utziko dut; komodaren gaineko pila batean. Urteetako metatze egonarritsuaren ondorioz, irriken mendi propio bat sortu dut. Interkomunikadore gisa ere balio du zenbaitetan, han trukutzen baititugu amamak eta biok mezuak, sekretuak bailiran.

Termitak leioa eta atea zabaltzen ditu, haize-lasterra sortu eta egurastu ahal izateko. Nire desirek gelako hormen kontra egiten dute talka. Elkarri gainjartzen zaizkio, galdu egiten dira zokaloetik edo leihotik behera erortzen dira. Arrapaladan biltzen ditut bizirik dirautenak eta kola zuriz itsasten ditut gorputz sendoago bat sortzeko: nahastu, moztu, estali eta ahaztu. Zereginean kontzentratzen naiz, ez dut harengana burua jiratzen, atetik zelatan ari zaidala antzeman arren.

Isilean, harriak hartu eta paperak zapaltzen ditut. Azkenean, begiak jaso eta aurre egiten diot zomorroiari. Termitak burua astintzen du, so egiten dit denborak krakaz bete duen begirada herdoildu horrekin. Hasperen egiten du sukaldera itzuli aurretik.

Idazten ikasi baino lehenagokoa dut gerta dadin nahi dudana idazteko mania. Horregatik, txikitan, amaren beharra nuen.

—Amatxo, idatzi: «Iraun dezatela larunbatera arte jorgurteko izozkiak eta gainetik botatzeko gauzatxoek».

Beti eramaten nituen papera eta boligrafoa aldean, serio-serio pasatzen nizkion, haren mugimenduei adi, eta hark barre egiten zuen idatzi bitartean. Nik ez nuen begia kentzen amaren eskutik, liluratu egiten ninduen haren mugimendu arinak. Ez nekien irakurtzen eta maitatua sentitzen nintzen oraindik, beraz, haren idazketan konfiantza jartzera behartzen nuen neure burua. Hark nire hitz guztiak, *nire desirak*, idazten amaitu arte ez nuen lasaitua hartzen. Gero, papera berreskuratu eta barruko arropen tiraderan gordetzen nuen.

Hori guztia ez dut gogoratzen. Termitak kontatzen dit indabak aletu bitartean. Oso berea duen modu horretan egiten du berba, hitzak desgaraiz intonatuz, oihuka batzuk, isilean beste batzuk.

Tantalorekin batera beste izaki gehiago bizi dira nire baitan; garunean, ziklope baten begia daukat txertatuta. Jenio biziko

izaki erraldoi bat da. Gustuko du harriak jaurtitzea eta itsasontziak hondoratzea. Ikaragarri maite ditu okela eta siesta luzeak egitea. Gainera, artisau trebea da.

Zazpi urte dauzkat, izebak hari buruzko ipuin bat irakurri dit. Erraldoi bilakatu nahi dudala pentsatzen dut. Harkaitza lantzen ikasi.

Esan egiten diot:

—Nagusitan ziklopea izango naiz, baina bi begirekin. Basoan biziko naiz eta harkaitzak landuko ditut.

—Zuk ezin duzu halakorik egin, kar-kar.

—Orduan, egurra landuko dut, errazagoa da.

Izebak ilea nahasten dit, eta barrez jarraitzen du:

—Ai, ez nizun ipuin hau ekarri behar. Zurea bai imajinazioa, ume! Hobe duzu ikasketei arreta jartzea. —Leihotik begiratzen du burua astintzeaz bat—. Erraldoia? Neskatila bat zara eta!

Arratsaldean lehengusuari oparitutako suhiltzaile kamioia apurtu dut. Salto egin dut haren gainean. Hirutan, lautan, bederatzitan. Erabat birrindu arte.

Okela apur bat tomateaz lapurtu dut bazkariko hondakinen lapikotik.

Gelara igo eta krisketaz itxi dut atea. Beste aldean, Jorge ostikoka. Oihuka. Negarrez. Haren mehatxuak entzuteari utzi diot, lo geratu naiz. Uste dut momentu horretan begiratu didala ziklopeak lehen aldiz.

Harrezkero, kabroi halakoak idazten dudan gutzia aztertzen du, kuestionatzen nau. Idazten dudan horretatik zenbat da egiazkoa? Zenbat, manipulatu? Zenbat, beste inorena?

Mihia biderkatzen zait edo lau gehiagotan urratzen: amamarena, amarena, modako artistarena, ni ez naizen edozeinena. Zintzuraren barrunbea inbaditzen didate eta azkar hartzen dut arnasa ez itotzeko.

Idazten dudanean, ahoa zabaltzen dut haiei tokia egiteko:

Amamarenari: *Disimula ezazu.*

Amarenari: *Iruzurra.*

Modako artistarenari: *36.785 like.*

Ni ez naizen beste inorenari: *Gimnasioa, taldea, autoestimua, terapia.*

Termitak arrapataka egiten du eztul, airea falta duela dirudi. Orduari begiratzan diot. Konketara hurbildu eta baso bat ur pasatzen diot tokatzen zaion pilularekin batera: bizkor hartzen dit pilula esku ahurretik, ni ukitu gabe. Arin edaten du, ezpainak busti gabe. Termitak funtsik ez duela ematen du.

—Gera zaituz La Joserekin, deitu egin du —dio, eta marranta egiten du.

—Zertarako? —ez dakit zertara datorren, bat-batean, halako agindu zuzena.

—Ikusi nahi zaitu.

—Ez dut ulertzen zergatik —erantzuten diot, haserre.

Sorbalda uzkuratzen du eta indabekin jarraitzen du.

Alaba du La Jose. Harekin geratzeko, auzotik irten behar da. Gerruntzea jarri ez jarri ibili naiz. Amaren eta hark nire gorputzarekiko duen mespretxuaren kontra armatu edo ez.

Termitaren inguruetatik irten eta bete-beteen sartzen naiz La Joserren lurraldean. Gozotegi bat bilatzen dut. *Frappé* izoztu bat esne-gainarekin, laranja ura, sandwich misto bat eta Nutellaz beteriko kruasana eskatu ditut. Gaur borrokaldia daukat.

Idazteari lotzen natzaio. Handik tarte batera sartu da ama, orrialdeari begiratu eta muturra okertu du.

—Neska, zu beti bezain sortzaile, zeure munduan, hegakor. —Gelditzen den kruasan erdia hartu eta jaten hasten da—. Ez niri hola begiratu, ez zaizu komeni.

Berak bai, hala begiratzen dit, askotan probatutako modu batean, ustekabearen eta asperduraren erdibidean. Alaba naizen aldetik, kopia lauso samarra naiz, amaiera irekia duen esaldi bukatugabe bat.

—Tori —diost, hirutan tolesturiko paper horixka zimurtu bat ateratzen duela. Tentuz zabaltzen dut, eta idazten zizkidan haur-desira haietako bat dela ikusten dut.

—Iturgina? —Ez dut ulertzen zergatik eskatu nion hori apuntatzeko.

—Batzuetan, erosketen zerrenda idazteko edo ohar arin bat hartzeko aprobetxatzen nuen.

Gozo begiratzen dit.

Bero handia nabari dut nire baitan. Izerditan nago. Giharrak uzkurtu eta luzatzen zaizkit, mugimendu bitxia da, borroka ikusezineko urteetan garatua.

Poltsan sartu du eskua, zorro ñimiño horietako bat da, ozta-ozta sartzen da ezpain-margoa, baina bere altxorak ere bertan gordetzen moldatzen da. Termitak adabatuko zion.

Bazkariko platerak mahaitik jaso, eskuzapi heze bat pasatu, auskalo nondik atera duen, eta argazki bat pausatu du eztiki.

—Begira zer aurkitu dudan! Zinema izarrak ematen duzue!

Eta ukitu gabe seinalatzen du irudia: Jorge lehengusua eta biok agertzen gara. Eguzkitako betaurrekoak ditugu eta besapean liburu bana, udako arropa zuriak soinean, praka motzak; agian Parosen egongo ginen, baina, seguruen, Almeriako kale batekoa izango da asfalto lurkara.

Ez dut momentu hura gogoritzen, baina familiako gertakizunak apaintzen zituen tentsioa nabari dut.

—Zoragarri zeunden, eder-ederra. Begira zer argal!

Prakari so egiten diot, 36 bat izango da, lasai daukat.

—Zergatik ikusi nahi ninduzun? –galdetzen diot, eta *frappéa* jartzen dut argazkiaren gainean. Irabiaturua kendu eta irudia salbatu aurretik amaren aurpegiak pasatzen dituen izu-faseak identifikatzen ditut.

Haren oroimena eta haren iragana, gero eta lausoagoa paper matean.

—Bisitan etorriko da Jorge. Hondartzako etxean bazkalduko dugu datorren larunbatean.

Aipatzea saihestu ohi dudan zerbaitek narama denboraren orban hartara. Hango usain etxetiarren urakanera. Udako hezetasunera. Mahai-zapi koadrodunetara. Granate ilunez perfektuki margoturiko azazkaletara. Ilearn laka usainera. Txandal praketara. Eskuetako masusta hondakinetara. Hatzak milikatzen dituen mihi batera. Miazkada

batzuetara. Geratu egiten naiz. Ez dakit ama zerbait antze-
mateko gauza den. Zirkinik egin gabe begiratzen dit *rin-*
garen bere aldetik; agindua ulertu dudala egiaztatzen du.